


EL KARBUR KE



ANJEL
LERTXUNDI

“EZ DITUGU HIZKUNTZAREN KOMISARIOAK BEHAR, **HIZKUNTZAREN ESTRATEGAK BEHAR DITUGU**”

Bi baldintza bete behar ditu elkarrizketa honek: euskarari buruzkoa izan behar du, eta bikoitza, euskaraz eta gaztelaniaz egina, baina galderak errepikatu gabe. Hauxe da hain zuzen bi bertsioetan azalduko den bakarra. Horrek zerbait iradokitzen dizu?

Askotan esaten dut gure belaunaldia dela, belaunaldi euskalduna eta nazionalista, euskera abandonatzen ari dena

Badira hizkuntza bati buruz ‘ad intra’ hitz egin daitezkeen kontuak eta oso zailak direnak kanporako azaltzen, hizkuntza beraren mekanismoei eta funtzionamenduari buruzkoak adibidez, euskararen perspektibatik euskaraz hitz egin behar direnak. Badira beste elementu batzuk soziolinguistikoagoak, elkarbizitzari ukitzen diotenak, beste komunitateari gehiago interesatzen zaizkionak. Hortik aparte, esango nuke ez dela hizkuntza bakarrik, erreferente kulturalak ere badira. Batzuk guztiz amankomunak izan arren, badira beste batzuk kultura bakoitzak berezkoak dituenak. Alde horretatik ere uler daiteke gauza ba tzuei buruz euskaraz hitz egitea eta beste batzuei buruz gaztelaniaz.

Euskaraz edo gaztelaniaz, euskararen inguruko diskurtso posible asko daude. Zeinetan sentitzen zara zu erosoan?

Bi egiten zaizkit erosoan. Tira eginez gero, hiru ere bai... Bat, nagusia, literarioa da, eta horren muina izango litzateke ahal den etekin espresibo gehiena ateratzea hizkuntzari. Bigarrena da irakaslearena. Irakasle izandakoa

naiz, eta hizkuntzaren irakaskuntzari eta horko premiei buruzko diskurtsoa asko inporta zait. Hirugarrenari ez zait gustatzen politikoa esatea, gehiago esango nuke soziala edo etikoa dela. Elkarbizitzarekin du zerikusia. Elebitasuna fenomeno linguistikoa da, baina inplikazio sozialak ditu, eta erantzukizun soziala eskatzen du. Hirugarren diskurtso hori praktikatu dut konpromiso kontuengatik, baina ez da nire terrenoa, nire terrenoa gehiago da idazlearena, baita irakaslearena ere.

Ikuspegi sozial horretatik, ‘eremu urriko hizkuntza’ da euskara. Etiketa egokia iruditzen

zaizu, edo baduzu gehiago asebetetzen zaituenen bat?

‘Eremu urrikoa’ ez zait gus-tatzen. Geografia planteatzen du eta, geografiaren aldetik, badira hainbat eta hainbat hizkuntza hiztun gutxi eta eremu zabalak dituztenak. Gutxiago-tua, minorizatua, berriz, bada euska-ra. Eta, azken mendeetan behintzat, hizkuntza bat ez da iristen horrelako egoerara praktika politiko jakin baten-gatik ez bada. Erabaki politikoek era zirkunstantzia historikoek ekarri dute hizkuntza batzuen aurrerapena eta beste batzuen atzerapena. Alde ho-rretatik, argi dago euskararen inguruan minorizazio eta gutxieste prozesu bat egon dela. Nik erabili izan ditut kontzeptu gisa hizkuntza hegemonikoak-hizkuntza ez hegemonikoak. Ez dute dena hartzen, baina ez daukat hoberik, eta ez daukadan bitartean horixe erabiltzen ja-rraituko dut. Nebrijaren esaldi bat badago, oso gogorra egiten zaiguna baina arrazoi osoa duena. Esaten du hizkuntza batek denbora laburrean hedapen izugarria hartzen duenean ez dela bere kalitatezko izaeragatik, baizik eta atzetik inperio bat izan duelako. Berdin zait zein, Espainiarena edo Britainia Handiarena, azkenean espantsiorako mekanismoak berdin-berdinak dira: in-darra eta inposaketa.

‘Zatitu eta irabaziko duzu’ esan omen zuen inperioa zabaltzen iaioa izan zen Julio Zesarrek. Euskararen inguruko iritzi aniztasun nabarmenak ez du ahuldu inposaketari aurre egiteko gaitasuna?

Denok gara hizkuntza baten jabe, denok dauzkagu hizkuntzari buruzko juizioak eta, beste alor batzuetan ez bezala, denok ematen dugu iritzia. Eta iritzi horiek guztiak maila berean jartzen dira. Ez dut esango denen balioa berdina denik, baina bai balio horren pertzepzioa. Horrek askoz anitzagoa egiten du hizkuntzaren kontua. Eta gero, gurea bezalako herri batean, ez daude bakarrik iritzi pertsonalak, baizik eta daude norberaren diskurtsoa eta norberaren praktika: bikoiztu egiten da ugaritasuna. Oso kurioa egin izan zait niri beti nola gure klase politikoa gauza izan den gizarte osoa martxa jakin batean jartzeko euskara dela eta, administrazioan, eskola sisteman... Baina beti besteentzat, ez etxerako. Kasu aipagarri gutxi batzuk kenduta, batere lotsarik gabe eskatzen diote gizarteari beraiek inondik ere praktikan jarri ez dutena.

Bi aurpegi horiekin badu zerikusia euska-ren inguruko itxurakeria gero eta zabalduagoak?

Itxurakeria hori pixka bat azalekoa da, azkenean denok egiten dugu gure antzerkitxoak. Badago euska-ren erabilera bat ni gehiago mintzen nauena, eta da eus-

Politikari askok
batere lotsarik
gabe eskatzen
diote gizarteari
beraiek inondik
ere praktikan
jarri ez dutena

ERUDDOLONE

karaz gauza bat esan eta erdaraz beste bat, entzulegoaren arabera. Izan dira euskal politikari batzuk beretarrentzat edo beretarrak direla pentsatzen du-tenentzat egin dutenak diskurtso bat euskaraz eta gero gaztelaniaz beste bat jorratu dutenak. Horrek itxurakeriak baino gehiago kezkatzen nau, hor da-goelako euskararen erabilera politiko eta maltzurra.

Oro har, euskararen inguruko zein topikok haserretzen edo aspertzzen zaitu gehien?

Asko estimatzen diot euskarari hainbeste urtetan eta mendez mende mantendu izana. Hor badago altxor bat gorde behar dena, nirea ez balitz ere gorde beharko litzatekeena. Hori kontu bat da, eta beste bat da nola erabiltzen duten politikoek euska-raren antzinatasun eta zahardade hori, gero beraiek praktikan harri gabe. Hor badago euskararen inguruko mitologia bat, badaude nazionalismoak erantsi dizkion kontu batzuk, niri batere gusztatzen ez zaizkidanak.

Nobedadeak agintzen duen munduan, eten-gabe aipatzen den antzinatasunaren argudio horrek ez du ematen gazteak euskarara erakartzeko era-ginkorrena. Ulertzen duzu hainbat gaztek euskara-rekiko duten epeltasuna?

Ulertzen dut, eta ez die bakarrik afektatzen gaz-teei, guri ere afektatzen digu. Nik askotan esaten dut gu-re belaunaldia dela, belaunaldi euskalduna eta baita ere nazionalista, euskara abandonatzen ari dena, errazago zaiolako eta ari delako nagusitzen onkeriazko diskurtso posibilibista eta politikoki zuzen bat: ezin da behartu, gaizki ikusia dago euskaraz egitera eskatzea. Egia da beste alde batetik gehiegikeriak egin direlako ere ger-tatu dela hori, baina pixkanaka-pixkanaka nagusitzen doa gaztelania. Eta hori ez da bakar-bakarrik belaunaldi berriak datozelako, militantziaren garaiak desagertu zi-relako eta beste garai politiko batzuetan bizi garelako. Hori egia izanik ere, sakonagoa da arazoa. Euskarak aurrera ikaragarri egin badu ere, proportzionalki orain dela mende erdi baino askoz presenteago dago erdera gure bizitzan. Ekarri diguten aberastasunarekin batera, hori ere ekarri digute teknologia berriek.

Horri aurre egiteko modurik badugu?

Hizkuntzaren kontuetan diagnosi onak egitea da inportantea. Azalekoak egiten badira, ez dugu as-matuko. Esaten dugunean gure neska-mutilek 16 ur-tera arte ikastolan edo euskal eskola batean jardun eta gero erraztasun gehiago dutela gaztelaniaz euskaraz baino, askok galdetzen dute ea nola den hori posi-ble. Hori posible ez izatea izango litzateke harrigarria,



Onkeriazko
diskurtso
posibilista ari
da nagusitzen:
ezin da behartu,
gaizki ikusia
dago euskara
hitz egitea
eskatzea

geuri bezalaxe neska-mutil horiei, irakurtzen ikasten dutenetik, egunero-egunero askoz ere erdara gehiago sartzen zaielako begietatik euskara baino. Irakasle batek hori bezain sinplea den kontua kontenplatzen eta analizatzen ez badu, eta hortik abiatzen ez bada, nekez emango dio soluzioa. Beti izan dut inpresioa, eta gaur oso garbi daukat, alor askotan hizkuntzaren komisario asko dauzkagula, eta ez dagoela hizkuntzaren estrategarik. Eta ez ditugu komisarioak behar, estrategiak behar ditugu, arazoak detektatu, aztertu eta zehaztu ondoren ahaleginduko direnak horiei irtenbide batzuk aurkitzen.

Zerbait edukitzekotan bada plan estrategoak dauzka euskarak.

Egia da asko sortu direla. Estatutu batek esaten duenean hau elebiduna izango dela, mekanismo bat jartzen da martxan, horrela eskatzen delako eta sortu diren premiak ase behar direlako, baina ez benetan analisi bat egiten delako. Gaur egun ditugun diskurtsorik garrantzitsuenak 60ko hamarkadan sortuak dira. Euskararen arazoak ikusita, orduan sortu ziren herriarengandik ikastolak, alfabetatze kanpainak eta gaur ezagutzen ditugun beste hainbat elementu. Egoera erabat aldatu da, baina ez da ezer berririk sortu, ez behintzat ezer eraginkorrik. Makinaria politikoak ekarritako planak bai, ez hausnarketak. Hipotesi moduan planteatzen dut bakarrik, baina aditu talde bat hasiko balitz eztabaidatzen nola eraman euskara administrazioa, agian esango luke hobe dela toki estrategoietan ondo eta txukun egitea denera eramaten saiatzea baino...

Estrategia eta praktika horiek ez dute eragin diskurtsoetan, ez dituzte berritu?

Bai, baina ez dute jauzi egin diskurtsotik kanpo, gehiago daudelako pentsatuta diskurtso mailan bestela baino. Demagun hainbeste hitz egiten den erabileraren auzia... Begira diezaiegun diskurtsoa edertzeko tartekatzen ditugun erdarazko esalditxo, partikula eta hitz betegarri. Euskarak momentu batean zailtasun espresibo bat du, eta jauzi egiten du beste hizkuntza batera. Gauza batzuk hartzen ditu, beste batzuk ez. Hartzen dituen horiek zergatik hartzen ditu? Zergatik ez dugu hori begiratzen eta aztertzen? Zergatik ez hasi erremedioak bilatzen, batez ere eskoletan? Lan asko eskatzen duelako eta ez duelako erreditu politikorik eskaintzen.

Lagunduko luke agian erabileraren auzia argitzen eta konponbidean jartzen.

Lehenik eta behin esan behar da euskararekin gertatzen dena hizkuntza guztiekin ari dela gertatzen. Teknologia berriek elkarren arteko komunikazioan izan duten eraginaren ondorioz, gaur Salamankako 16 urteko

gazte bat orain dela 50 urteko bat baino askoz indefentsoago dago bere hizkuntzari eusteko. Hala eta guztiz ere, egia da gurea bezalako hizkuntza bati askoz ere gehiago eragiten diola horrek guztiak. Esate baterako, motibazioarekin zerikusia duten elementuek. Gure motibazioek beti izan dute zerikusi handia ideologiarekin eta 'gure' hitzarekin. 'Gure' esateko garaian oso garbi izan behar duzu pertzepzio hori, eta gaur gero eta zailagoa da hori. Lotu dezakezu, oso modu generikoan, nazionalismoaren ideologiarekin eta mundu horrekin, baina hizkuntza batekin bene-benetako identifikazioa sortzen da zuk hizkuntza hori beharrezkoa ikusten duzunean zure manifestazioetarako, 'zure' sentitzen duzunean, ez 'gure', eta hizkuntza horrekin poza sentitzen duzunean, guztiz eroso sentitzen zarenean.

hizkuntzaren senarekin zerikusia duten zer bait ematen. Izan dugu prurito bat berrikuntzaren izenean bizkarra erakustekoa tradizioari, baina hori gabe ez dugu ezer. Uste dut gorabehera horiei guztiei buruzko gogoeta falta dela.

Zerbaitetarako balio du eskolan, askotan egiten den moduan, euskara bigarren edo hirugarren hizkuntza bat izango balitz bezala irakastea?

Gutxienez balio du justizia sozial baterako, jaiotzez euskalduna denak euskara gehiago erabiltzeko aukerak izateko, elkarbizitza errazteko, eta ez da gutxi. Hizkuntza bat transmititu daiteke komertziantze izateko: bilete bat erosteko, hotel batean gela eskatzeko... Hizkuntza horrek balioko du fenizio izateko, baina

buruz hitz egiten dut. Eusten diet horren oinarrian dauden ikuspegiei, baina gaur ez nago hain ziur euskarak aurrera egingo badu edo iraungo badu ez ote den hori bidea; bere hizkuntzan sinesten duen eta aurrera egin nahi duen elite bat alegia. Elitea bada, ezaugarri bat du oso inportantea: segurtasuna eta finkotasuna bere hizkuntzarekin, pitzadurarik gabeko jarduna. Nekez galduko du hizkuntza, oso ondo finkatua daukalako.

Horrek ez luke euskara urrunduko maila horretara iristen ez direnengandik?

Hor dago kontuan gehiago eduki beharko genukeen eta asko kezkatzen nauen erregistroen arazoa. Minoria horrek ziurtatzen du hizkuntzak iraun egingo duela, nekez galduko du, oso ondo

SI ISTIEFYEI IMSΔNIDISI IM/VEI II ITV/ENTDRAEESSEOI IIEI IEA?

Bizkarra erakutsi diogu tradizioari berrikuntzaren izenean, baina hori gabe ez gara ezer

Hizkuntzarekin harreman afektibo hori ez baduzu, oso zaila da hurrengo pausoa ematea, eta afekzio hori txikitzen finkatzen da batik bat, horren dudarik ez dago.

Gogoeta horrek eskolan euskara irakasten den modura garamatza zuzenean. Arazoaren gakoetako bat hor egon daiteke?

Neurri handi batean abandonatu egin dugu hizkuntzaren karga sentimental guztia, azkeneko kontuen alde. Azken-azkeneko momentuko pailazoen kanta jakingo du umeak, baina ez du jakingo 'Salamankara nindoalarik' kantatzen. Horrek suposatzen etendura bat aurreko guztiarekin, errorik ez izatea... Gaur egun transmisioa ez da ia etxean egiten, eskolan egiten da, eta eskolan ume txikiei tradizioetik datorkigun zer bait ematen diedanean, ari naitzaie

fenizio hizkuntza batek ez du balio norberaren hizkuntza izateko, eta neurri handi batean sistema planteatzen ari da da izan gaitez denak fenizio. Gero elementu psikologikoak ere badaude, norberaren formazioaren arabera, kortesiarekin zerikusia dutenak... Esate baterako, ikusten duzunean besteak ez daukala erraztasunik euskaraz aritzeko, eta zeuk egiten duzunean erdararako pausoa. Hor norbera erabat libre da. Nik, adibidez, aitortzen dut gauza horietan oso ahula naizela.

Gatozen berriro tradizioa, hizkuntzaren senara. Hori faltan ematearekin ba al du zerikusirik azken urteetan hedatzen ari den tokian tokikoarekiko estimuak?

Gaurdaino kritikatu egin dut euskararen elitismoa. Oker ez bano, 'Gogoeta zubi' liburuan horri

finkatua daukalako, baina eredu hori ezin da aplikatu gorabehera guztietan. Kontua da gainerako guztiengana nola heldu, nola egin zubia, nola erakarri gero eta jende gehiago trinkotasun horretara. Trinkoa izanik, oso zurruna ere bada, eta hizkuntzaren zurruntasun hori beharrezkoa bada iraungo badu, malgutasun falta ere badakar. Eta justu horren kontra sortu da batez ere gazteen artean lehen aipatu duzuna, garai batean beren herrietan hitz egiten zen moduan hitz egiteko joera. Hain zuzen ere, argotaren faltan ez dakit hori den biderik egokiena, baina gaztelaniara pasatzea baino egokiagoa da, eta nolabait nortasun seinale ere bihurtzen bada, hori irabazi dugu. Niri kezka edo galderak sortzen zaizkit hori pasatzen denean idatzira, bihurtzen

Niretzat eskola da garrantzitsuena, hortxe jarriko nituzke kemen eta indar guzti-guztiak. Estrategiak guztiz aldatuta, jakina

IRILLAKON SEDEUGATINOSTO DE LULLU

denean interneteko foroetako hizkera. Badaude hor desajuste inportanteak, baina inportanteagoa da nire ustez zergatik gertatu den galdetzea. Kontuz joera hori hain garbi kritikatu eta deusezterakoan, horren atzean benetako arazoak daude eta.

Hortik etor daitezke aurretzean euskararen erronka nagusiak? Lehentasunak aldatzen hasi beharko genuke?

Nik baietz uste dut. Fokalizatuegia dago dena gorabehera guztiz teorikoetan, eta ez dut esaten teoriarik behar ez dugunik, hausnarketararako ezinbestekoak baitira tresna teorikoak, baina ez teoria teoriagatik. Garai batean linguistekin gertatu zitzaigun bezala, kilometro karratuko soziolinguista gehien ditugun herria izango gara. Eskolarako inportantea psikolinguistika den bezala, soziolinguistika politikarentzat da premiazkoa, eta hori nagusitu da erabat. Niretzat eskola da garrantzitsuena, ordea. Hortxe finkatzen dira trebezia linguistikoak, eta kemen eta indar guzti-guztiak hor jarriko nituzke. Eta, jakina, estrategia guztiz aldatuta.

Baduzu aldaketarako proposamenik?

Hizkuntzarekin lau gauza egin daitezke bakarrik: entzun, erantzun, idatzi eta irakurri. Horiek dira landu beharreko lau elementuak, gainontzeko guztiak horien zerbitzura daude, gramatika barne. Hori argi edukiko bagenu eskoletan beste era batera funtzionatuko liguke asuntoak. 14-16-18 urte arte, irakasle bat zerbait

baldin bada hizkuntza irakaslea da. Ematen duen gaia ematen duela ere, dena hizkuntza baten bidez ematen du, eta ari da ikasleak prestatzen hizkuntzaren alor eta erregistro desberdinetarako. Tontokeria bat dirudi, baina hori ulertzeak perspektiba erabat aldatzea dakar.

Perspektibaren hari horri helduta... Iaz, Koldo Izagirrek, Joseba Sarrionaindiak eta zerrorrek, Izagirrenarenean izan ezik beste gai batzuei ere erreparatzen zieten liburu banatan, euskararen inguruko gogoeta aberasgarriak ekarri zenizkiguten, eta badirudi irakurleek oso harrera ona egin dietela zuen ekarpenei. Kasualitate hutsa?

Liburu guztiz desberdinak dira, baina azkenean, alde edo moldez, inziditzen dute kontu hauetan guztietan. Profesionalki, idazleak gara hizkuntzarekin gehien borrokatzen garenak, guri eskatzen zaigulako hizkuntzari ateratzea inork atera ez dizkion etekinak. Horrek etengabe jartzen gaitu hizkuntza kontuekin hausnarrean eta, are gehiago gurea bezalako hizkuntza izanda. Ni harritzen nauena ez da hirurok horretan kointziditu izana, baizik eta zein idazle gutxi eta zein aldian behinka jarduten dugun honetan. Gero, harrigarriro eta beste saio batzuk ez bezala, liburu horiek funtzionatu egin dute. Horrek esan nahi du badagoela kezka, bada-goela gai hauei buruzko hausnarren premia. Horrelako liburu batek nobela batek bezala funtzionatzea sintomatikoa da.



M




L

J



S





LA 2

12.30 Para todos La
14.30 Miradas 2 (re)
15.00 La mitad inv
15.30 Saber y gana
16.00 Grandes docu
16.55 Documentale
17.25 Documentale
18.25 Biodiario
18.30 Mover monta


19.00 Expedición
'San Miguel de All
Atotonilco'
19.30 El hombre
(serie venezolana)

20.00 La 2 Notici
La actualidad, con
mos de la mano
anda
20.30 Miradas 2
Informativo cultur



22.00 El cine de l
'En la ciudad'. 200
Un grupo de amig
Barcelona se junta
diario para charlar
us cosas.
ntemente su
rista





EL KARRER

ANJEL
LERTXUNDI

“EN UN FUTURO CONSTRUIDO ENTRE TODOS, EL EUSKERA DEBE SER UN ELEMENTO BÁSICO”

Esta entrevista tiene que cumplir dos condiciones: debe girar en torno al euskera y tener dos versiones, una en euskera y otra en castellano, pero sin que se repitan las preguntas. De hecho, ésta es la única pregunta común a ambas versiones. ¿Qué le sugiere?

En todas las literaturas hay libros, necesarios para esas literaturas y esas lenguas, que no se traducen porque hablan de cuestiones intrínsecas a la propia lengua, a su funcionamiento. Del mismo modo, hay obras que tienen un interés más general, y son esas las que se traducen. Yo quisiera poner las condiciones de la entrevista en esa misma perspectiva: hablar de algunos aspectos en euskera y para la gente que habla euskera y de otros, en castellano, para los lectores que desconocen la lengua. Ambos grupos comparten algunas circunstancias idénticas, pero hay otras que son diferentes y específicas.

¿Esa perspectiva podría tener algo que ver con aspectos relacionados con la identidad? Es una cuestión que, cuando se vincula al euskera, suscita muchas reticencias. Le planteo dos propuestas, cada una en un extremo: el lingüista irlandés David Crystal escribió que “la lengua

No hay ningún elemento que sea tan determinante desde el punto de vista de la identidad como la lengua

es la expresión primaria de la identidad. Cuando una lengua desaparece, desaparece una percepción sobre lo que significa el ser humano”; la escritora y periodista Irene Lozano, por su parte, afirmaba que “la lengua no condiciona el modo de pensar y ver el mundo”. ¿De cuál de las dos posiciones está más cerca?

No afirmaría lo que afirma Crystal con la contundencia con que lo hace pero, por supuesto, estoy más cerca de su visión que de la de Irene Lozano. Solo el hecho de que una lengua sea aglutinante o no afecta al modo de pensar, al modo de discurrir, y la manera en que uno vehicula los elementos de una frase influye necesariamente en el modo de pensar. Aunque haya otros, que yo conozca no hay ningún elemento que sea tan determinante desde el punto de vista de la identidad como la lengua. Todos manifestamos tener una lengua y, a la pregunta de cuál, muy poca gente dirá que tiene dos. Nos identificamos con una lengua determinada y con unos determinados conciudadanos de tal forma que, cuando la lengua desaparece en un determinado individuo, desaparece también su identidad anterior, porque se ha configurado una nueva.



Ser bilingüe es vivir las dos lenguas como propias, aunque siempre habrá una que configura tu identidad

¿Optar por una determinada identidad lingüística es una decisión estrictamente personal?

No creo que sea una decisión solamente personal, porque las circunstancias externas tienen mucha influencia, pero el factor personal es decisivo. Hasta que no se produce una simbiosis entre la lengua que eliges y tú mismo, difícilmente puedes hablar de identidad, y por esa razón el proceso identitario lleva su tiempo, como se ve en las migraciones, en las que la identidad del país de acogida rara vez se siente como propia en la primera generación. La identidad no se compra en un estanco: o bien te viene dada, y la tienes que conservar, o puedes dotarte de una nueva por decisión propia. Y eso es, siempre, un proceso personal que requiere tiempo.

¿Cómo encajan en esa construcción individual de la identidad vinculada a una lengua elementos como la identidad colectiva o el multilingüismo?

Le he dado muchas vueltas a esa cuestión, y creo que, fundamentalmente, también la identidad colectiva gira siempre en torno a la lengua. Y cuando me refiero a la lengua me estoy refiriendo a tradiciones literarias, a historias comunes relacionadas con la mitología, con la forma de ver el mundo... Con lo que no tiene nada que ver es con las historias polí-

ticas recientes. Pongamos por ejemplo la identidad vasca. Los tres últimos siglos han sido tan convulsos desde el punto de vista histórico y político que han ido tejiendo historias familiares absolutamente diversas, así como lecturas de esas historias también radicalmente diferentes, pero no por eso se rompe la identidad. Desde mi perspectiva, cuando yo hablo en euskera estoy hablando en el marco de un entramado cultural que no tiene nada que ver con el mundo cultural castellano. En ese hablar en euskera están presentes Juana de Albret y los intentos de conseguir una lengua común, está Axular, está el integrismo religioso presente en nuestra literatura tradicional; están nuestros pastores en Estados Unidos o en Argentina... En cambio, cuando hablo en castellano en mis palabras está presente la poesía medieval, está presente Neruda, están presentes muchísimas referencias, porque una lengua no es exclusivamente un entramado comunicativo. Ese entramado comunicativo está revestido de un ropaje que es toda la tradición cultural y toda la historia de esa lengua. ¿Por qué yo me considero bilingüe? Porque, de una forma u otra, domino esos dos entramados. También hablo francés e italiano, pero no me considero bilingüe en esas lenguas, porque conozco sus mecanismos pero no todos los entramados que conllevan.

Si establecemos esas condiciones para ser considerado bilingüe, ¿cómo podemos denominar a quienes han aprendido euskera pero, en muchos casos, no han dado el siguiente paso? ¿Es también de los que opinan que la expresión ‘euskaldun berri’ resulta poco adecuada?

Tal como yo lo entiendo, saber otra lengua, sin más, no te convierte en bilingüe. Ser bilingüe es estar viviendo las dos lenguas como si fueran propias, aunque siempre haya una de ellas que destaque y configure tu identidad. Con respecto a la otra cuestión, diría que el ‘euskaldun berri’ no existe. Esa expresión tan sólo se podría aplicar, y estaría mal aplicada, a aquella persona que conoce el euskera de manera únicamente instrumental, y creo que en ese caso tampoco sería adecuado. En el caso de la persona que se ha integrado totalmente en el mundo del euskera, el término ‘euskaldun berri’ no vale porque es insuficiente y, además, resulta lesivo. Por el contrario, en el caso de quienes tienen un conocimiento exclusivamente instrumental de la lengua, la definición es excesiva. A mi juicio, o se es euskaldun o no se es. De todas maneras, yo creo que al principio el término euskaldun berri era un término positivo, elogioso, de acogida y de reconocimiento del mérito, de un esfuerzo. En ese sentido, hay una cosa que me gusta repetir: somos muy exigentes con los demás, y no lo

somos nada con nosotros mismos. Si nosotros, los 'euskaldun zaharrak', hubiéramos hecho el uno por mil del esfuerzo que ha hecho un 'euskaldun berri', las cosas nos irían bastante mejor. Sin embargo, les exigimos que hagan el mil por uno, cuando nosotros no somos capaces de hacer el uno por mil.

¿No sería más fácil tratar entender que hay más de una manera de ser euskaldun?

Esa no es una cuestión propia del euskera, porque no conozco ninguna cultura que se viva del mismo modo por todos y en todas partes. En el caso de culturas y lenguas adquiridas, esas percepciones tienen mucho que ver con las motivaciones por las que se produce esa adquisición. Hay formas que son históricamente más habituales o convencionales, como la emigración, y hay otras que tienen que ver con las motivaciones políticas, o con las relacionadas con el deseo de integrarse, de pertenecer a un determinado grupo. Los procesos son distintos, pero el resultado es prácticamente el mismo. Desde mi punto de vista, el dilema está en decidir si vamos a intentar ponerle puertas al campo o si, por el contrario, vamos a mirar a esas cuestiones no como problemas sino como fenómenos inevitables que se van incorporando a nuestra vida. Lo que hay que hacer es tratar de entenderlos y, en aquellos puntos en los que haya fallos, tanto en nuestra comunicación con ellos como en su integración en nuestra comunidad, tratar de solventar los problemas afrontándolos.

¿Cree que esas fallas en la comunicación y la integración han derivado o pueden derivar en problemas de convivencia entre el euskera y el castellano?

Lo que sí existe es un problema real de conocimiento. Mientras yo conozco la realidad cultural española, mi vecino de Zarautz desconoce totalmente mi realidad cultural. Sabe que yo hablo euskera, pero no conoce los contenidos culturales que mi lengua comporta. Esa es la tragedia que vivimos, ese es el problema. Yo diría que el otro supuesto problema, el conflicto lingüístico, lo han inventado y alimentado los políticos, porque creo que no se produce ni en las familias ni en las escuelas. La elección de una plaza escolar para un hijo, por ejemplo, es una decisión mucho más importante y más costosa que elegir a qué partido dar el voto y, a pesar de todos los discursos catastrofistas, esa elección está tomando todos

los años unos tintes determinados con respecto a la lengua. Y, curiosamente, las protestas que se han producido en el medio educativo no han venido por parte de los padres, algo que incluso hubiera sido comprensible en ciertos lugares, en ciertos contextos, sino por cierto núcleo de profesores.

¿Profundizar en el bilingüismo supondría mejorar la calidad de esa convivencia?

Por supuesto, el conocimiento de las dos lenguas por parte de la población es un elemento 'sine qua non' para la convivencia, pero siempre teniendo en cuenta que en ese conocimiento, y por mucho tiempo, la relación será desequilibrada, porque la presencia del castellano será mucho más potente. Pero, incluso en esa situación de desequilibrio, incluso en esa descompensación, cada paso que se

dé será positivo. No se trata de mirar hacia atrás y de empezar a hablar de reparaciones que nunca hemos pedido, pero hay que reconocer que durante los últimos 300 años se ha producido una desculturización de este país, en la que también participaron muchísimos vascos y muchísimos euskaldunes. Teniendo eso en cuenta, hay que tomar en consideración que el problema del euskera no es un

problema exclusivo de los que hablamos euskera, es un problema de país. Cuanto más idónea y más justa sea la solución que se le dé, este país convivirá mejor. Hay una cuestión que yo tengo clara, y es que cuando hablamos de la pacificación, cuando hablamos de un futuro construido entre todos, el tema del euskera es un elemento básico. Me da la impresión de que en muchos comportamientos históricos el tema de la lengua ha tenido más importancia que componentes tradicionalmente ideológicos, porque lo que está en juego es la identidad. Por lo tanto, creo que el tema del euskera hay que contemplarlo con otro tipo de seriedad. Todos nos tenemos que despojar de muchos prejuicios que tenemos en torno al futuro de la lengua, al futuro del bilingüismo y al futuro del país.

¿Un eventual futuro en paz ayudaría a hacerlo?

No tengo ninguna duda de que sí. La violencia ha frenado el planteamiento de muchísimas cuestiones, y ha imposibilitado hablar de muchos temas a calzón quitado. Desde el punto de vista de la convivencia, uno de los efectos nocivos de la violencia ha sido precisamente no abordar muchos de los problemas existentes. En materia lingüística, por ejemplo, el tema de las marginaciones sociales, que en muchos

Los euskaldunes
hemos cedido y
seguimos cediendo
mucho, y eso es algo
que se nos debería
reconocer

ámbitos del país es un tema muy presente y preocupante... La violencia ha fagocitado muchos debates, y yo tengo la esperanza de que uno de los más candentes, que es el del euskera, se pueda tratar con otra sinceridad, sin que esté viciado porque se introducen constantemente elementos extraños.

El marco actual del debate institucional es el documento 'Euskara 21', que sienta las bases de la política lingüística para el siglo XXI. ¿Qué le parece?

En un tema tan importante como el lingüístico, los consensos son fundamentales, y creo que eso retrae un poco el juego político normal que suele haber en otros ámbitos. En otros temas, la ruptura del consenso es tan democrática como su mantenimiento, pero en el tema de la lengua nos estamos jugando mucho, y se cede mucho. En ese sentido, el marco me parece adecuado, lo que pasa es que los prejuicios están tan enraizados que acaban saliendo por todas las esquinas. Cuando a mí el lehendakari me habla de la Euskadi profunda, yo sé exactamente de qué me está hablando: me está hablando de la Euskadi en la que está el euskera, la Euskadi rural, la de mentalidad atrasada. Sé perfectamente que es así. Pero el lehendakari debería saber que para la comunidad lingüística euskaldun existe también una Euskadi profunda que está en nuestro imaginario y no coincide con la suya. Lo que sucede es que hay dos percepciones distintas del país, y que esas percepciones distintas del país vienen dadas por la lengua. También hay otra cuestión: todas las refe-

rencias que estamos haciendo se refieren a la Comunidad Autónoma Vasca, pero se da la circunstancia de que el país del vascoparlante es algo más. Al político de la CAV le basta con eso, pero a mí no. La cuestión es bastante más complicada de lo que parece, y uno se mantiene prudente con respecto a determinados temas, aunque poco a poco el tiempo va deshaciendo tabúes y creando otros. Yo, creo, en cualquier caso, que en muy poco tiempo vamos a empezar a hablar, y muy en serio, de todas esas cosas, por muy dolorosas que resulten, aunque hablar muy en serio tampoco signifique absolutamente nada más que eso...

¿Ayudaría a dar ese paso que quienes viven en castellano tuvieran un poco más de empatía con los euskaldunes y sus circunstancias?

No me gusta hablar en términos personales, pero mi historia es la de una persona totalmente desculturizada, la de alguien que llega monolingüe a la escuela, que a los quince o dieciséis años, casi ha perdido su lengua y ha adquirido una nueva y que, por las razones que sean, en un momento determinado decide que su lengua de cultura y su lengua de escritura va a ser el euskera. Hasta ahí, es una historia muy común en este país... Una vez tomo esa decisión, después de haber sido desculturizado, después de haber realizado un esfuerzo por culturizarme en mi lengua, soy tachado de antimoderno, se me reprocha que escriba en euskera y, cada vez que se me hace una entrevista, se me pregunta por qué escribo en euskera y no en castellano, que también lo hago. Esa pregunta me parece una falta de respeto absoluta, una falta de respeto que viene de alguien que considera que lo suyo es lo bueno, superior a lo mío. Eso viene de siglos de mantenimiento de una idea sobre la función imperial del español, y desmontarlo va a exigir

tantos años y tantos esfuerzos que no sé si se va a lograr nunca.

Y exigirá seguir tomando medidas de apoyo al euskera, algo que no todo el mundo ve con buenos ojos.

Sí, parece ser que la modernidad viene de la igualación por alto, pero eso no es cierto. La igualdad no viene por arriba, porque nosotros ahí no llegamos. Ese discurso teñido de modernidad de moderno no tiene nada y, en realidad, lo único que hace es negar los problemas. Lo que dice es "abandona tu lengua y ven a la normalidad", dando la sensación de que la defensa de lo propio supone alejarse de la normalidad. En cierta medida, quien tiene algo siempre tiene miedo a perderlo, y hace un discurso desde la posición de quien no tiene problemas. Y quien no tiene problemas y no se pone en la piel del otro normalmente siempre es injusto, y hace un discurso universalista. Yo también soy universalista pero, al igual que trato de ponerme en su discurso, echo de menos que se pongan en mi posición. Alguien que está viviendo la situación agónica de su lengua siempre la tiene presente y, sin embargo, eso no preocupa para nada al que está escribiendo en castellano...

Sin embargo, hay quien alerta sobre la marginación del castellano en Euskadi. ¿Cómo se puede percibir de maneras tan opuestas una misma realidad?

Si yo pongo como principio un determinado elemento ideológico, puedo ir casándolo todo conforme al mismo, y si no tengo ningún escrúpulo intelectual, funciona. Ese tipo de cosas pasan cuando el objetivo político está por encima de la coherencia y de la honradez intelectual y, desde luego, la clase política no es la que más destaque por su honradez intelectual. Además, son tan impresionantes las maquinarias mediáticas

Las manipulaciones acerca del euskera siempre vienen del orgullo y el engreimiento de alguien que se considera superior



Que me pregunten por qué escribo en euskera en vez de hacerlo en castellano me parece una falta de respeto absoluta

que se ponen en marcha que, con los medios y las voces con los que nosotros contamos, no se pueden contrarrestar. Como es imposible responder cada vez que se produce una de esas manipulaciones, tienes que recurrir a un arma que antes se llamaba paciencia histórica e ir sobrellevando las úlceras que provocan ese tipo de circunstancias, que vienen siempre desde el orgullo y el engrimamiento de alguien que se considera superior, tanto en número como en poder. En ese sentido, los euskaldunes hemos cedido y seguimos cediendo mucho, y es algo que se nos debería reconocer.

¿Percibe algún riesgo de conflicto como consecuencia de ese tipo de actitudes?

Es posible que esos discursos alimenten únicamente a la parroquia que comulga con ellos, pero cuando saltan a los medios de comunicación, y hay políticos a los que les vienen bien, pueden convertirse en peligrosos. Entre nosotros todavía no ha sucedido, no hay ninguna guerra lingüística y no se vislumbran en el horizonte posibilidades de que eso pueda suceder, entre otras cosas porque para que la hubiera el euskera debería tener mucha más fuerza de la que tiene. A mí lo que me preocupa de estas situaciones es que se pueda estar perdiendo aquello que durante la Transición parecía que teníamos ganado, esa especie de miramiento para con el euskera. Quizá tampoco nosotros hemos hecho las cosas del todo bien y hemos ido alimentando algunas de esas reacciones. Creo que tendríamos que hacer cierta autocrítica, porque hemos ido perdiendo por el camino algunas alianzas comunitarias, hemos perdido un poco el buen nombre, y creo que también hemos podido ser responsables de no haber sabido explicar bien las cosas.

Una de las exigencias que más a menudo plantean los políticos es la necesidad de despolitizar el euskera. ¿También le parece necesario a usted?

Yo creo que lo que se quiere decir cuando se habla de despolitizar el euskera es que hay que desligar el euskera del nacionalismo. Y creo que sí, que tienen toda la razón, pero la única forma que veo de despolitizar el euskera y desvincularlo del nacionalismo vasco es sumándose ellos al euskera, y defendiéndolo mejor que el nacionalismo tradicional. Eso es despolitizar el euskera, eso es hacerlo de

todos. Lo que ocurre es que tengo la impresión de que parte de la población y parte de la clase política de este país se siente incómoda con el tema del euskera, y tiene la sensación de que la situación mejoraría considerablemente si no existiera el problema lingüístico.

Existe también un discurso social en torno al euskera centrado en su defensa, en la denuncia de los ataques que sufre y en la reivindicación de sus derechos. ¿Cree que el discurso institucional y el social están suficientemente integrados?

A mí no me preocupa tanto que existan esos dos discursos, me preocupa que sean tan inoperantes. Hay un enfrentamiento a veces solapado y a veces a la vista, hay dos sistemas distintos, todos sabemos que hay dos objetivos distintos pero, sin embargo, eso no me preocuparía tanto si fueran más operativos. Pero son inoperantes, porque tanto la política oficial como la otra son dos sistemas de vida, de soluciones vitales personales. Yo solamente confío en que sigamos manteniendo la enorme paciencia histórica que hemos tenido, y en que hagamos entre todos un esfuerzo por optimizar lo que tenemos, sin convertir cada paso que damos en un problema.